

Juan Cruz Alli

• CDNKO PRESIDENTEA ETA KONGRESURAKO ZERRENDABURUA •

«Batzen gaituen nafartasunean eraiki behar dugu izate nazionala»

■ Juan Cruz Alli CDNko presidente aukeratu zuten berriz iragan asteburuan, alderdiaren II. Kongresuan, eta Madrilgo hauteskundeetarako zerrendaburu ere bada. ■ Nafarroa eduki guztiak dituen nazio moduan definitzen du Allik, eta nafarren ezaugarri komunekin «izate nazional» hori eratzea proposatu du. ■ Marbxoko bozetan inork gehiengo absoluturik ez lortzea espero du, garailea nazionalistekin negoziatzera behartua egon dadin.

■ **CDNk II. Kongresua egin zuen joan den asteburuan. Bertan behin eta berriro esan duzue Nafarroa ez dela eskualde bat, nazionalitate bat baizik. Zer esan nahi du horrek?**

Espainia nazio, hizkuntza eta kultura askoko errealitate bezala ulertzen dugu. Hau herri askotarikoa da maila guztietan, baita gertaera nazionaletan ere. Gertaera horietan Nafarroa ezin daiteke eskualde moduan hartu; izatera nazionala, historikoa, juridikoa, kontzientziazkoa eta identitatezkoa duen nazio bezala hartu behar da. Edozein nazioren baldintzak betetzen ditu. Ez da beharrezkoa nazio batek estatu bat izatea. Beraz, Konstituzioak dioen moduan, Espainiako nazioa existitu daiteke eta beste izate nazional batzuek osatua egon daiteke. Identitate nazionalak batzen dira. Pertsona bat senti daiteke katalana eta gainera espainiarra. Nafarroa eskubide historikok dituen nazio bat dela aldarrikatzen dugu, eta, beraz, egun Espainia den errealitate nazioaniztaren parte da.

■ **Non sartzen da zuen planteamenduan euskal herri-tar kontzientzia duena baina espainiarra ez?**

Oso erraz. Nafarroa izate nazional anitza da. Nafarroan batera bizi dira hainbat kultura eta hainbat aukera politiko. Nafarroako gizarte askotariko hori batzen duena hau da, denok kontzientzia izatea errealitate politiko, kultural eta humano berekoak garela. Batzuk nafarrak eta espainiarrak sentitzen dira; beste batzuk nafarrak soi-

lik; besteak nafarrak, euskal herritarrak eta ez espainiarrak; eta gainerakoak nafarrak, euskaldunak eta espainiarrak. Identitateen batuketa pertzepzio eta sentimendu petsonalen arabera ere bada. Nafarroa herri mestizoa da. Kultura askoren nahasketa da, nahiz eta egun bi dauden: bata, indartsuena, jatorria erromantzean duena, eta hizkuntza gaztelania; bestea, jatorrizko kultura dena, baskoia, Nafarroan indar gehiago eduki zuena baina historiak beste toki batera eraman duena. Bata eta bestea ez dira bate-

raezinak. Guk defendatzen dugun nafartasuna bateratzailea da, eta nabarrismoak aldiz bazterketa sustatzen du. Nabarrismoak euskal kultura arbuia-tu egiten du, eta ez du hartzen herri honetako talde identitatearen iza-

te propio bezala. Horregatik, nafartasuna bateratzailea da eta nabarrismoa baztertzailea. Nafarroako komunitate politikoko jendea nafarra sentitzen da, eta gero gehitu nahi dituzun nabardura guztiak. Hor eraiki behar dugu izate nazionala, batzen gaituen horretan, eta gero bakoitzak nahi duen proiektu politikoa dauka. Ezin diot esan Nafarroarentzat EAEn integratzeko proiektua duen euskal nazionalista sentitzen den nafar bati nafarra ez denik.



CRISTINA BERTAIN

Nire proiektua ez den beste bat du, eta Nafarroako herriak demokratikoki erabaki-ko du zer nahi duen. Lan egin dezagun batzen gaituenarekin.

■ **Ponentzia ideologikoan, bakegintzaz eta ondoko herrialdeekin izan beharreko harremanez mintzatu zarete. CDNk badu proposamenik bakea lortzeko?**

Izaera politikoa duen arazo bati elkarrizketa bidez ekin behar zaio. Guztien iritzia-
errespetatuz eta irtenbideak

bilatuz lan egin behar da. Hori guztia, betiere, zuzenbide estatuaren arauen barruan. Elkarrizketa da arazok konpontzeko bidea, eta gero beste neurri batzuk ere hartu behar dira: presoak hurbiltzea, giza eskubideak errespetatzea...

■ **Alderdi guztien mahai bakarraren aldekoa zara?**

Hori esan dugu beti, eta uste dugu elkarrizketan parte hartu behar dutela herritarren ordezkari legitimoek. Hori-
ek dira bake prozesu batean afera politikoak

mahai gainean jarri behar dituztenak.

■ **Zein baldintza bete beharko lirateke mahaia osatzeko?**

Gobernuaren eta ETaren aldetik esertzeko borondatea egotea. Hori-
ek baitira prozesu honetan lehen erabakiak hartu behar dituztenak.

■ **Horretarako, egungo erakundetzea apur-
tu beharko litzateke?**

Ez, noski. Erresuma Batuk ez du hautsi bere erakundetze modua hainbat urtetan negoziatzen egon eta gero. Topagune bat aurkitzen saiatu dira, eta akordioetara iristen autogobernurako irtenbidea bilatu dute.

■ **Nafarroak, EAEk eta Akitaniak sinatu mugaz gairdiko protokoloa hautsi berri du Sanz presidenteak, EAEekin behintzat. Nafarrek bere erabaki behar dute EAEekin eta Espainiarekin zer harreman mota nahi dute?**

Sanzek hautsi duena da Europako Batasuneko (EB) esparruan dagoen elkarlanerako hitzarmen protokoloa. EBko eskualde politika, bertako errealitatea eta Europako Kontseiluak bultzatu ekinbide bateratua burutzeko eta Europako

eraikuntzan elkarrekin lan egiteko aukera hautsi du Sanzek, bere ustez sinatzaile-
etako batek ez duelako egiten berak EHrekiko egiten duen politika. Argudio erabat er-
gela eta zentzugabea da, Euro-
pako esparru bat delako. Hori da Erriberako baten ez izan eta bai uste-
koa; harro-
ko agertu da, hauteskunde kanpaina ait-
zin, bere aldeko jendea berotzeko. Galtzaile bakarra Nafarroa da, eragotzi egiten baitio Frantziako eskualde oso garrantzitsu batekin harremanetan egote-